


Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 jaitsi ziren 2015eko irailean aurreko hilaren aldean

2014ko irailaren aldean eraikuntza gastuak %0,2 gutxitu ziren

2015eko irailena, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasan %0,2, EUSTATen datuen arabera.



Aurreko hilaren aldean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak %0,4 gutxitu dira.

Irailean Etxegintza (%-0,3) eta Obra Zibila (%-0,7) azpisektoreen lehengaien kostuak jaitsi egin dira. Urte artean: Etxegintzako lehengaien kostuetan, %+0,1; Obra Zibilarenetan %-3,3.

Sektoreak kontsumitutako lehengaietan (2015eko irailean 2014koaren aldean) prezio hazkunderik handienak, urte artean: Zurgintza (%3,7), Energia elektrikoa eta gasa (%2,2), Ez-metalezko mineralak (%1,2). Prezio jaitsierarik handienak azken hamabi hiletan: Petrolio-fintzea (%-27,8), Metalurgia (%-3,0), Industria kimikoa (%-1,5).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2015EKO IRAILA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	101,8	-0,3	-0,2	0,2
Eraikinak	102,0	-0,3	0,2	0,4
Obra zibila	100,7	-0,5	-2,5	-0,5
LEHENGAI	100,7	-0,4	-0,4	0,2
Eraikinak	100,9	-0,3	0,1	0,4
Obra zibila	99,2	-0,7	-3,3	-0,7
LAN-ESKUA	105,7	0,0	0,3	0,3

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)

Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)